

# 2025-2027 DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA



OIARTZUNGO  
UDALA

## ATARIKOA

Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren 8. artikulua arabera, dirulaguntzak ematea proposatzen dituzten Administrazio Publikoen organoek Plan Estrategiko baten bitartez honako edukia zehaztu beharko dute: bilatzen diren helburu eta ondorioak, horiek lortzeko beharrezko epea eta bideratuko dituzten finantzaketa iturriak.

Gauzak horrela, Oiartzungo Udalak dirulaguntzen Plan Estrategikoa eguneratzeari ekin dio, udalaren sustapen jarduna egitasmo batean biltzeko asmoarekin, dirulaguntzen bitartez egiten den gastu publikoaren eraginkortasuna hobetzeko tresna bezala eta helburuen jarraipen eta ebaluaketa egiteko sistema gisa erabilia izan dadin.

Egitasmo honen edukia Dirulaguntzen Legearen Erregelamendua arautzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 12. artikuluan xedatutakoari lotu da: helburu estrategikoak, jardun-planaren dirulaguntzen lerroak, jarraipen eta ebaluaketaren araubidea. Zuzenean ematen diren dirulaguntzen kasuan berriz, egitasmoak, helburuak, kosteak eta finantzaketa iturriak besterik ez ditu jasoko.

Egitasmoaren epea hiru urtekoa izango da, 2025tik 2027ra, nahiz eta, epe hori amaitutakoan, planaren baliotasuna eta jadanekotasuna egiaztatuta luzatzeko aukera egongo den.

Plan Estrategiko honek programa baten izaera du eta ez ditu eskubide zein betebeharririk sortzen, eta bere eraginkortasuna dirulaguntzen lerro desberdinak martxan jartzeari baldintzatzen da, beti ere aurrekontuek emango dituzten bitartekoak kontuan hartuta.

### **I. TITULUA- XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. ARTIKULUA.- Planaren alderdi estrategikoak**

##### 1. Misioa:

Udalaren dirulaguntza jardun osoaren arrazoa izateko egindako tresna da eta honako helburu hauetan zehazten da:

- Herritarren parte-hartzea sustatu eta bultzatzea, edozein motatako jardun kultural, gizarte mailako, edo kirolakoak antolatu ditzaten, beti ere jarraian esango diren irizpideen baitan eta bereziki, aukera berdintasunaren esparru batean eta ahultasun sozialeko egoerak gainditzea bultzatuz.
- Udal kudeaketako eremu desberdinetan herritarren parte-hartzea bultzatzea eta baita interes publikoa duten jardunetan udalarekin kolaboratzea ere.

##### 2. Printzipio Orokorrak

- Publizitatea eta lehiakortasun askea, aurrez egindako deialdi bidez. Bertan, objektibitatea, gardentasuna, publizitatea, lehiakortasuna eta fondo publikoen banaketan berdintasuna bermatu beharko dira, hori guztiori, emakida zuzenaren kaltetan gabe. Emakida zuzenak, aplikatu dakiekeen arauan ezarritakoaren arabera, aurrez dagokion aurrekontu kontsignazioa izan beharko du.

- Aurrez deialdian ezarritako irizpide objektiboen arabera egingo da emakida, onuradun izan daitezkeen irizpide horiek aurrez ezagutzen dituztela bermatzeko.
- Eraginkortasuna izatea jarritako helburuak lortzeko orduan eta efizientzia izatea bitarteko publikoak esleitzeko orduan, eta ebaluatu eta neurtu egin behar izatea bai kuantitatiboki bai kualitatiboki.
- Dirulaguntza eskatzen duten erakundeen helburuak diruz lagundutako jardueretan berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetara egokitzen direla kontrolatzea eta aztertzea. Gainera, berdintasunean era positiboan eragiteko xedea izango dutela ere bermatuko da.
- Plan Estrategikoaren egokitasuna uneoro egiaztatzea. Hau da:
  - Plana termino sozialetan justifikatzea.
  - Planak kontuan hartzen dituen herritarren beharrak.
  - Finantza gaitasuna.
  - Arlo horretako udal eskumena azaltzea.

### 3. Helburu Orokorrak

2025-2027 ekitaldietarako Plan Estrategiko honen eta Oiarzungo Udalaren laguntza eta dirulaguntza lerroen helburu orokorrak honako hauek dira:

1. Dirulaguntzak eman aurretik udalei dagokion plan estrategikoa onartzera behartzen duen azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 8.1 artikuluan jasotako legezko agindua betetzea.
2. Oiarzungo Udalaren laguntza eta dirulaguntza lerro eta programa guztietarako printzipio eta exekuzio oinarri komunak ezartzea eta normalizatzea.
3. Dirulaguntzen udal kudeaketa hobetzea eta arrazionalizatzea dirulaguntza lerroen kudeaketan zeharkakotasuna, efikazia eta eraginkortasuna baloratuz.

### 4. 2025-2027 epealdirako jarduera lerro estrategikoak

Plan Estrategiko honetan zehaztuko diren dirulaguntzak honako lerro estrategikoetan banatzen dira:

1. lerro estrategikoa: Ekonomiaren sustapena
2. lerro estrategikoa: Hezkuntzaren sustapena
3. lerro estrategikoa: Euskararen sustapena eta normalizazioa
4. lerro estrategikoa: Kultur dinamizazioa
5. lerro estrategikoa: Ingurumena eta landa garapena
6. lerro estrategikoa: Gizarte ekintza
7. lerro estrategikoa: Gazteriaren sustapena
8. lerro estrategikoa: Kirol sustapena
9. lerro estrategikoa: Berdintasunaren sustapena
10. lerro estrategikoa: Bizikidetzaren sustapena

Lerro bakoitzerako aurreikusitako kopuruak urteko Udal aurrekontu bakoitzean jasotakoak dira.

Jarduera lerro zehatz horien indarraldia aurrekontu ekitaldi bakoitzerako lerro horiek urteko aurrekontuan onartzearen eta horientzako diru izendapenak egitearen menpe geldituko dira eta horrek mugatuko ditu.

## **2. ARTIKULUA.- Dirulaguntzak emateko prozedura**

Dirulaguntzak emateko ondorengo prozedurak aurreikusten dira:

1. Norgehiagoka erregimenean emandako dirulaguntzak.
2. Aurrekontuan aurreikusitako dirulaguntza izendunak.
3. Interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioengatik edo deialdi publikoa egitea zailtzen duten behar beste justifikatutako beste arrazoi batzuegatik zuzenean emandako dirulaguntzak.
4. Lege mailako arauen batek hala ezarrita, Oiartzungo Udalak eman beharreko dirulaguntzak edo diru kopurua.

Orokorrean, dirulaguntzak norgehiagoka erregimenean emango dira. Horretaz gain, udal aurrekontuetan izendun bezala agertzen diren dirulaguntzak laguntza zuzen bezala eman ahal izango dira, eta dirulaguntzaren izaeraren, presaren edo interes publikoaren arabera dirulaguntzak emateko bestelako prozeduraren bat behar den kasuetarako, prozedura horiek erabili ahal izango dira, indarrean dagoen legeriaren arabera, aurrez justifikatu ondoren. Dirulaguntza oinarrietan bertan arautzen den dirulaguntza lerro bakoitzerako egokia den prozedura jaso beharko da.

## **3. ARTIKULUA.- Planaren kontrola eta jarraipena**

Dirulaguntza lerro bakoitzaren eraginkortasunaren ebaluaketan laguntzeko asmoz, laguntzak emateko prozesuan parte hartzen duten sailek onuradunei Memoria arrazoitua eskatuko diete, bertan onura izan duten biztanleen kopurua, generoagatik bereizita, eta helburuen betekizun maila zehaztuta agertu beharko duelarik.

Eranskinean jasotako lerro eta egitasmo desberdinetan, helburuen betekizun maila ebaluatzeko dirulaguntza bakoitzari aplikatu beharreko adierazleak zehazten dira. Modu horretan, gaurkotasuna galtzen duten aspektuak eguneratzeko bidea jartzeko tresna edukiko da.

## **4. ARTIKULUA.- Eranskinen edukia**

Eranskinean aurreikusitako dirulaguntzak sailka eta lerro estrategikoen arabera antolatzen dira, egitasmo zehatza, helburuak, emateko moduaren zehaztapena, aurrekontua, partida eta ebaluaketarako adierazleak jasoaz.



## ERANSKINA

### LERRO ESTRATEGIKOAK, HELBURU ZEHATZAK ETA LAGUNTZA PROGRAMAK

#### 1. lerro estrategikoa: Ekonomiaren sustapena

Helburu orokorra: Oartzunen garapen ekonomiko jasagarria eta enpleguaren sustapena genero ikuspegitik bultzatzea herritarren bizi kalitatea hobetzeko.

Programaren deskribapena	Helburua	Hartzaileak	Dirulaguntza mota	Zenbatekoa (2025)	Aurrekontu aplikazioa (2025)	Adierazleak	Ekintza plana: oinarri arautzaileek izan beharreko oinarrizko lerroak eta plana gauzatzeko egutegia
Merkataritza txikia sustatzeko dirulaguntzak	Gertuko merkataritza txikia dinamizatu eta sustatzea. Merkataritza Txikia Suspertzeko Plan Bereziaren baitan jasotako ekintzak gauzatu, merkatarien eta Udalaren arteko harremanak egonkortu, hitzaldi, jardunaldi, hezibide ekintzak gauzatu eta bono kanpaina egiteko aukera.	Iturri, Oartzungo merkatarien elkarte	Itunpekoa	20.000,00 €	1 0223.481.430.00.01	Merkataritza Txikia Suspertzeko Plan Berezian jasotako ekintzen gauzatze maila.  Urtean irekitako denda txikien kopurua  Urtean itxitako denda txikien kopurua  Urteko memoria eta txosten ekonomikoa	Indarraldia: Urtekoa  Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak.



OIARTZUNGO  
UDALIA

Merkataritza txiki berria sustatu eta laguntzeko dirulaguntza	Gertuko komertzio eta merkataritza txiki berrien ezarpena sustatzea	Merkatari berriak	Norgehiagoka	2025: 35.000  2026-2027: garapenaren arabera, 50.000 € gehienez	1 0223.471.430.00.01	Urtean irekitako denda txikien kopurua  Urteko memoria eta txosten ekonomikoa	Indarraldia: Urtekoa  Arloan dauden dirulaguntzak arautzen dituzten Araudiek eta oinarriek horien xedea eta helburuak, hartzaileak eta parte-hartze baldintzak, dirulaguntza emateko kontzeptuak eta irizpideak, dirulaguntzen justifikazioa, diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa, diruz lagundutako ekintzen justifikazioa eta hartzaileen betebeharrak jasoko dituzte.
Etxebizitza hutsen alokairua sustatzeko dirulaguntzak	Merkatukoak baino prezio txikiagoan etxebizitza hutsak alokairuan jartzea Bizigune edo ASAP programetan. Etxebizitza hutsak alokairura erakartzeko dirulaguntzak ematea: berritzeko laguntzak eta hobariak.	Etxebizitza hutsen jabeak eta maizterrak	Norgehiagoka	5.000,00 €	1 0201.480.150.00.01	Urtean merkaturatutako etxebizitza kopurua	Indarraldia: Urtekoa, deialdia urte osoan irekita  Arloan dauden dirulaguntzak arautzen dituzten Araudiek eta oinarriek horien xedea eta helburuak, hartzaileak eta parte-hartze baldintzak, dirulaguntza emateko kontzeptuak eta irizpideak, dirulaguntzen justifikazioa, diruz lagun daitekeen



							gehienerako zenbatekoa, diruz lagundutako ekintzen justifikazioa eta hartzaileen betebeharrak jasoko dituzte.
Naziometroa, Euskal Burujabetzaren Barometroa	Euskal Burujabetzaren Barometroa ikerketa babestea, euskal herritarren nahi eta gogoen inguruan ezagutza zabalagoa edukitzeko.	Olaso Dorrea Fundazio	Itunpekoa	3.000 €	1 0101.481.912.00.03	Urteko memoria eta udal ordezkariari aurkezpena.  Urteko emaitzen aurkezpen publikoa	Indarraldia: Urtekoa  Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak.

## 2. lerro estrategikoa: Hezkuntzaren sustapena

**Helburu orokorra: Herrian hezkuntza parekidean berrikuntza sustatu eta hezkuntza eskaintza hobetzea, ikastetxe ezberdinen jarduera lagundu eta bultzatuz. Horretarako ikastetxeetako gastuak zati batean finantzatuko dira haurren heziketa osatzeko, ikastetxeetako baldintzak hobetzen laguntzeko, udalerriko ikastetxeetako kalitatea bermatzeko eta ikastetxeen parte hartzea bultzatzeko herriko ekimenetan.**

Programaren deskribapena	Helburua	Hartzaileak	Dirulaguntza mota	Zenbatekoa (2025)	Aurrekontu aplikazioa (2025)	Adierazleak	Ekintza plana: oinarri arautzaileek izan beharreko oinarrizko lerroak eta plana gauzatzeko egutegia
Hautzaro Ikastolaren mantenimendurako dirulaguntza	Hautzaro Ikastolaren azpiegituren mantentze-lanetan	Hautzaro Ikastola	Itunpekoa	L.H.: 258.769,05 € + 20.000 €	1 0312.481.323.00.02 1 312.781.323.01.01  1 0312.481.324.01.02	Urteko memoria eta txosten ekonomikoa	Indarraldia: Ikasturtea



OIARTZUNGO  
UDALA

	<u>genero ikuspegia txertatuz laguntzea</u>			D.B.H.: 156.913,14 € + 10.000€	1 0312.781.324.01.01		Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak.
Ikastetxeen eskolaz kanpoko ekintzetarako dirulaguntzak	Udalaren dirulaguntzen lerro estrategikoarekin bat datozen eskolaz orduz kanpoko programa <u>hezkidetzailleak</u> diruz laguntzea, adibidez, dantza edo bertsolaritza esparruetan. Hemendik kanpo geratzen dira, une puntualetan ikastetxeek antolatzen dituzten kultur, kirol edo bestelako ekitaldi eta jarduerak, horiek diruz laguntzeko sail bakoitzak dirulaguntzak badituztelako.	Elizalde Herri Eskola  Haurtzaro Ikastola	Norgehiagoka	6.500,00 € 6.500,00 €	1 0311.481.326.00.01 1 0312.481.326.00.01	Urteko memoria eta txosten ekonomikoa.  Parte hartzaile kopurua, sexuagatik eta ekintzagatik desagregatua.  Eskolaz kanpoko ekintzek udalaren dirulaguntzen lerro estrategikoekin duten bateragarritasun maila.	Indarraldia: Ikasturtea  Arloan dauden dirulaguntzak arautzen dituzten Araudiek eta oinarriek horien xedea eta helburuak, hartzaileak eta parte-hartze baldintzak, dirulaguntza emateko kontzeptuak eta irizpideak, dirulaguntzen justifikazioa, diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa, diruz lagundutako ekintzen justifikazioa eta





OIARTZUNGO  
UDALA

							hartzaileen betebeharrak jasotzen dituzte
--	--	--	--	--	--	--	---



OIARTZUNGO  
UDALA

### 3. lerro estrategikoa: Euskararen sustapena eta normalizazioa

**Helburu orokorra:** Oiartzunen euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea eta normalizatzea. Horretarako, adin nagusiko Oiartzuarrei euskara ikasteko erraztasunak eskaintzea, merkataritzan, herriko elkarteetan eta enpresetan euskararen erabilera sustatzea, gazteak aktibatzea eta motibatzea hainbat arlotan euskara erabiltzeko eta euskarazko komunikabideen jarduna bultzatzea dira lerroak.

Programaren deskribapena	Helburua	Hartzaileak	Dirulaguntza mota	Zenbatekoa (2025)	Aurrekontu aplikazioa (2025)	Adierazleak	Ekintza plana: oinarri arautzaileek izan beharreko oinarrizko lerroak eta plana gauzatzeko egutegia
Euskaltegiko talde txiki eta bereziak sustatzeko dirulaguntza	HABEk laguntzen ez dituen taldeak (ikasleen adinarenegatik, ikasle kopuruarenegatik, erritmo txikiarenegatik...) aurrera atera ahal izatea	Euskaraz Kooperatiba Elkarteak	Itunpekoa	56.800,00 €	1 0321.481.335.00.11	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Urteko memoria eta txosten ekonomikoa.</li> <li>- Talde kopurua.</li> <li>- Ikasle kopurua.</li> <li>- Ikasleek lortutako emaitzak.</li> </ul>	<p>Indarraldia: Ikasturtea</p> <p>Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak.</p>
Euskara ikasteko dirulaguntzak	Helduei euskara ikasteko eta hobetzeko ikastaroak egiteko erraztasunak ematea. Bereziki lehentasunezkoak diren kolektiboei: ikasleak, langabeak, pentsiodunak, zaintzaileak, langileak, elkartetako kideak...	Oiartzunen erroldatuta dauden edota bertan hainbat sektoretan lan egiten duten 16 urtetik gorako pertsonak	Norgehiago ka	53.000,00 €	1 0321.480.335.00.01	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskaera kopurua.</li> <li>- Emandako dirulaguntza kopurua, sexuagatik eta ikasmailagatik desagregatuak.</li> <li>- Baztertutako eskaera kopurua.</li> <li>- Erabilitako kreditua eta dirulaguntzen batez bestekoa.</li> <li>- Ikasleek lortutako emaitzak.</li> </ul>	<p>Indarraldia: Ikasturtea</p> <p>Arloan dauden dirulaguntzak arautzen dituzten Araudiek eta oinarriek horien xedea eta helburuak, hartzaileak eta parte-hartze baldintzak, dirulaguntza emateko kontzeptuak eta irizpideak, diru-</p>



OIARTZUNGO  
UDALA

							laguntzen justifikazioa, diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa, diruz lagundutako ekintzen justifikazioa eta hartzaileen betebeharrak jasotzen dituzte
UEUn ikasteko bekak	Oiartzunen erroldatuta dauden eta UEUko ikastarotan parte hartzen duten herritarrei laguntza ematea.	Oiartzunen erroldatutako eta UEUn ikasten duten herritarrak.	Norgehiago ka	300,00 €	1 0321.481.335.00.06	<ul style="list-style-type: none"><li>- Eskaera kopurua sexuagatik desagregatuak.</li><li>- Emandako dirulaguntza kopurua, sexuagatik desagregatuak.</li><li>- Baztertutako eskaera kopurua sexuagatik desagregatuak.</li><li>- Erabilitako kreditua eta dirulaguntzen batez bestekoa.</li></ul>	Indarraldia: urtekoa  Arloan dauden dirulaguntzak arautzen dituzten araudiek eta oinarriek horien xedea eta helburuak, hartzaileak eta parte-hartze baldintzak, dirulaguntza emateko kontzeptuak eta irizpideak, dirulaguntzen justifikazioa, diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa, diruz lagundutako ekintzen justifikazioa eta hartzaileen betebeharrak jasotzen dituzte



OIARTZUNGO  
UDALA

Oiartzun Irratiari dirulaguntza	Herriko komunikabide euskalduna diruz laguntzea, euskararen erabilera sustatzeko egiten duen ekarpenagatik	Hitz hots kultur elkarteak	Itunpekoa	71.000,00 €	1 0321.481.335.00.03	Urteko memoria eta txosten ekonomikoa.  Oiartzun Irratia kudeatzen duen erakundeak eta Oiartzungo Udalak jarraipen batzordea osatzen dute eta bertan egiten da jarraipena.	Indarraldia: Urtekoa  Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak.
Ttur-ttur EB Kultur Elkarteari laguntza	Oiartzun euskalduntzeko eta euskararen normalizaziorako egitasmoak egiteagatik laguntza ematea.	Ttur-ttur euskaltzaleon Bilgunea kultur elkarteak	Itunpekoa	73.300,00 €	1 0321.481.335.00.05	Urteko memoria eta txosten ekonomikoa.  Mugaldeko udalekuak: - Parte-hartzaile kopurua, sexuagatik desagregatua. Euskara Elkartera / Aktibazioa: - Ekintza kopurua. Motibazio Saioak: - Saio kopurua Txerri eguna: - Parte-hartzaile kopuruak, guztiak, sexuagatik desagregatuak: egitasmoa antolatzen, egunean bertan egitasmoa antolatzen,	Indarraldia: Urtekoa  Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak.



						postu kopurua, ikusle kopurua, . Oiartzarren Baitan: - Ekintza kopurua.	
Oiartzualdeko Hedabideak	Eskualdeko euskarazko hedabideak bultzatzea, Oarso-Bidasoako Hitza kudeatzen duen Oiartzualdeko Hedabideak S.A. diruz lagunduz	Oiartzualdeko Hedabideak S.A.	Itunpekoa	22.700,00 €	1 0321.481.335.00.09	- Urteko memoria eta txosten ekonomikoa. - Harpidedun kopurua, sexuagatik desagregatua. - Irakurle kopurua sexuagatik desagregatua.	Indarraldia: Urtekoa  Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak.
Arlo sozioekonomikoa euskalduntzeko laguntzak	Arlo soioekonomikoa euskalduntzeko egitasmoetan (Ola plana, Lanin, euskara komertziora eta euskara elkartera egitasmoak) parte hartzen duten komertzio, elkarte eta enpresei euskara planak egiteko eta euskara zerbitzu eta lan hizkuntza izateko laguntza ematea.  Errotulo nagusia euskaraz jarri nahi duten establezimendu,	Arlo soioekonomikoa euskalduntzeko egitasmoetan (Ola plana, Lanin, euskara komertziora eta euskara elkartera egitasmoak) parte hartzen duten establezimendu, elkarte eta enpresak.  Errotulo nagusia euskaraz jarri nahi duten	Norgehiago ka	21.800,00 €	1 0321.481.335.00.04	- Eskaera kopurua. - Emandako dirulaguntza kopurua - Baztertutako eskaera kopurua. - Erabilitako kreditua eta dirulaguntzen batez bestekoa.	Indarraldia: Urtekoa  Arloan dauden dirulaguntzak arautzen dituzten Araudiek eta oinarriek horien xedea eta helburuak, hartzaileak eta parte-hartze baldintzak, dirulaguntza emateko kontzeptuak eta irizpideak, dirulaguntzen justifikazioa, diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa, diruz lagundutako ekintzen



OIARTZUNGO  
UDALA

	elkarte eta enpresei laguntza ematea.	establezimendu, elkarte eta enpresak.					justifikazioa eta hartzaileen betebeharrak jasotzen dituzte
Euskalgintzaren Kontseiluari laguntza	Euskalgintzaren Kontseiluaren egitasmoak diruz laguntzea	Euskalgintzaren kontseilua	Itunpekoa	1.000,00 €	1 0321.481.335.00.07	- Urteko memoria eta txosten ekonomikoa.	Indarraldia: Urtekoa  Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak.
Hizkuntz Eskubideen Behatokiari laguntza	Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren egitasmoak diruz laguntzea	Hizkuntz Eskubideen Behatokia	Itunpekoa	1.000,00 €	1 0321.481.335.00.08	- Urteko memoria eta txosten ekonomikoa.	Indarraldia: Urtekoa  Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak.
Hamaika Telebista kudeatzen duen Donostialdea Ikusentzunezkoak SAri dirulaguntza	Euskal Herriko euskarazko hedabide txikiak bultzatzea, Hamaika Telebista kudeatzen duen Donostialdea Ikusentzunezkoak SA diruz lagunduz.	Hamaika Telebista kudeatzen duen Donostialdea Ikusentzunezkoak SA	Itunpekoa	5.000,00	1 0321.481.335.00.12	- Urteko memoria eta txosten ekonomikoa.	Indarraldia: Urtekoa  Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak.
Udalaz gaindiko interes orokorreko erakundeei laguntzak	Udalaz gaindiko erakundeei dirulaguntzak Euskararen aldeko ekintzak antolatu ditzaten	Euskararen arloko udalaz gaindiko erakundeak	Norgehiago ka	3.040,00€	1 0321.481.335.00.01	- Urteko memoria eta txosten ekonomikoa.	Indarraldia: Urtekoa  Arloan dauden dirulaguntzak arautzen dituzten Araudiek eta oinarriek horien



OIARTZUNGO  
UDALA

							xedea eta helburuak, hartzaileak eta parte-hartze baldintzak, dirulaguntza emateko kontzeptuak eta irizpideak, dirulaguntzen justifikazioa, diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa, diruz lagundutako ekintzen justifikazioa eta hartzaileen betebeharrak jasotzen dituzte
Ikastetxeetako ikasleek osatutako Euskara taldeei laguntzak	Ikastetxeetako ikasleek osatutako Euskara taldeei dirulaguntzak Euskararen aldeko ekintzak antolatu ditzaten	Ikastetxeetako ikasleek osatutako Euskara taldeak	Zuzenekoa/ Izenduna	1.650,00€	1 0321.481.335.00.10	- Urteko memoria eta txosten ekonomikoa.	Indarraldia: Urtekoa  Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak.
Aisialdiko begirale/zuzendari eta kirol entrenatzaile ikastaroak	Oiartzungo herritarrek aisialdiko begirale/zuzendari eta kirol entrenatzaile ikastaroak euskaraz egin ditzaten	Aisialdiko begirale/zuzendari edota kirol entrenatzaile ikastaroak euskaraz egin	Norgehiago ka	2.000,00 €	1 0351.481.337.20.03	- Eskaera kopurua sexuagatik desagregatuak. - Emandako dirulaguntza	Indarraldia: urtekoa  Arloan dauden dirulaguntzak arautzen dituzten



OIARTZUNGO  
UDALA

euskaraz egiteko dirulaguntzak		dituzten Oiartzunen erroldatutako pertsonak edota Oiartzungo aisialdi edo kirol talde batean begirale/zuzen dari/entrenatza ile bezala ari diren pertsonak				kopurua, sexuagatik desagregatuak. - Baztertutako eskaera kopurua sexuagatik desagregatuak. - Erabilitako kreditua eta dirulaguntzen batez bestekoa.	araudiek eta oinarriek horien xedea eta helburuak, hartzailleak eta parte-hartze baldintzak, dirulaguntza emateko kontzeptuak eta irizpideak, dirulaguntzen justifikazioa, diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa, diruz lagundutako ekintzen justifikazioa eta hartzailen betebeharrak jasotzen dituzte
--------------------------------	--	--	--	--	--	--	--





OIARTZUNGO  
UDALA

#### 4. lerro estrategikoa: Kulturaren dinamizazioa

Helburu orokorra: Oiertzungo kultura berreskuratzeko, herritarren artean kultura formakuntzarako eta kultur-aisialdia bultzatzeko laguntzak ematea, genero ikuspuntua kontuan hartuz.

Programaren deskribapena	Helburua	Hartzaileak	Dirulaguntza mota	Zenbatekoa (2025)	Aurrekontu aplikazioa (2025)	Adierazleak	Ekintza plana: oinarri arautzaileek izan beharreko oinarrizko lerroak eta plana gauzatzeko egutegia
Ibargain Musika Eskolarekin hitzarmena	Musika irakaskuntza zerbitzuak eskaini oiartzuarrei	Ibargain Musika Eskola	Itunpekoa	100.000€	1 0331.480.334.00. 0 3	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskaera kopurua.</li> <li>- Emandako dirulaguntza kopurua, sexuagatik eta ikasmailagatik desagregatua.</li> <li>- Baztertutako eskaera kopurua.</li> <li>- Erabilitako kreditua eta dirulaguntzen batez bestekoa.</li> <li>- Ikasleek lortutako emaitzak.</li> </ul>	<p>Indarraldia: urtea</p> <p>Arloan dauden dirulaguntzak arautzen dituzten Araudiek eta oinarriek horien xedea eta helburuak, hartzaileak eta parte-hartze baldintzak, dirulaguntza emateko</p>



OIARTZUNGO  
UDALA

							kontzeptuak eta irizpideak, dirulaguntzen justifikazioa, diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa, diruz lagundutako ekintzen justifikazioa eta hartzaileen betebeharrak jasoko dituzte
Soinuena fundazioarekin hitzarmena	<p>Herri musika eta herri soinutresnen ikerketa eta ezagutza bultzatzea.</p> <p>Herri musikaren eta herri soinutresnen ondarea gordetzea bultzatzea.</p> <p>Herri musika eta herri soinutresnen ezagutza</p>	Soinuena fundazioa	Itunpekoa	108.000 € 3.600€	1 0331.481.333.00.08 1 0331.481.334.00.03	<p>Urteko memoria etatxosten ekonomikoa.</p> <p>Adierazle hauek erekontuan hartuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bisitari kopurua sexuagatik desagregatuta.</li> <li>- Urtean antolatutako ekintzak eta partehartzaile kopurua.</li> </ul>	<p>Indarraldia: Urtekoa</p> <p>Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak.</p>



	zabaltzea. Musika eskolak ematea.						
Luberri fundazioarekin hitzarmena	Geologia, Paleontologia eta Lur Zientzien azterketa eta zabalkundea bultzatzea.	Luberri fundazioa	Itunpekoa	70.737,99 €	1 0331.481.333.00.09	Urteko memoria eta txosten ekonomikoa.  Adierazle hauek ere kontuan hartuko dira: - Bisitari kopurua sexuagatik desagregatuta.	Indarraldia: Urtekoa  Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak.
Ohiko kultur ekitaldiak laguntzeko programa	Herrian kultur ekitaldien antolaketa bultzatzea	Kultur ekintzen antolatzaileak	Norgehiagoka	85.000,00 €	1 0331.481.334.00.01	Eragile bakoitzak ekintzari buruz egindako memoria eta txosten ekonomikoa.  Adierazle hauek ere kontuan hartuko dira: - Eskaera kopurua - Emandako dirulaguntza kopurua - Baztertutako eskaera kopurua.	Indarraldia: Urtekoa  Arloan dauden dirulaguntzak arautzen dituzten Araudiek eta oinarriek horien xedea eta helburuak, hartzaileak eta

						<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erabilitako kreditua etadirulaguntzen batez bestekoa.</li> <li>- Parte hartzaile kopurua: antolatzaileak eta ikusleak, sexuagatik desagregatuak.</li> </ul>	<p>parte-hartze baldintzak, dirulaguntza emateko kontzeptuak eta irizpideak, dirulaguntzen justifikazioa, diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa, diruz lagundutako ekintzen justifikazioa eta hartzaileen betebeharrak jasoko dituzte</p>
Erraldoi konpartsarekin hitzarmena	Erraldioen inguruko ondarea berreskuratzea eta honen zabalkundea bultzatzea.	Erraldioen konpartsa	Itunpekoa	3.000,00 €	1 0331.481.334.00.05	Urteko memoria eta txosten ekonomikoa.	<p>Indarraldia: Urtekoa</p> <p>Dirulaguntzaren izaerarengatik ez dago oinarrien beharrik</p>



Lartaun abesbatzarekin hitzarmena	Oiartzunen kantugintzaren inguruko mugimendua bultzatzea.	Lartaun Abesbatza	Itunpekoa	6.000,00 €	1 0331.481.334.00.07	Urteko memoria eta txosten ekonomikoa.  Ekintza kopurua eta bakoitzeko ikusle kopurua, sexuagatik desagregatua.  Parte hartzaile kopurua, sexuagatik desagregatua.	Indarraldia: Urtekoa  Dirulaguntzaren izaerarengatik ez dago oinarrien beharrik
Ihote taldearekin hitzarmena	Oiartzungo ihoteak sustatzea, antolatzea eta hauen zabalkundearen laguntzea.	Ihote taldea	Itunpekoa	8.000,00 €	1 0331.481.334.00.09	Urteko memoria eta txosten ekonomikoa.  Ekintza kopurua eta bakoitzeko ikusle kopurua, sexuagatik desagregatua. Parte hartzaile kopurua, sexuagatik desagregatua.	Indarraldia: Urtekoa  Dirulaguntzaren izaerarengatik ez dago oinarrien beharrik
Karaez-Oiartzun senidetza	Karaez herriarekin Oiartzunek duen senidetza bultzatzeko eta harremanak mantentzeko diruz laguntzea.	Karaez-Oiartzun senidetza taldea	Itunpekoa	1.000,00 €	10331.481.334.00.10	Urteko memoria eta txosten ekonomikoa.	Indarraldia: Urtekoa  Dirulaguntzaren izaerarengatik ez dago oinarrien beharrik



Antzerkigintza bultzatzeko Salsa guztietako perrexila Oiartzungo antzerki taldearekin hitzarmena	Antzerkigintza herrian sustatzeko eta ikastaroen gastuak ordaintzeko laguntzak	Salsa guztietako perrexila Oiartzungo antzerki taldea	Itunpekoa	16.000 €	1 0331.481.334.00.06	Urteko memoria eta txosten ekonomikoa.  Antolatutako ekintza, talde kopurua.  Parte hartzaile kopurua, sexuagatik desagregatua.	Indarraldia: Urtekoa  Dirulaguntzaren izaerarengatik ez dago oinarrien beharrik
Hitzen Lihoa taldearekin hitzarmena	Euskal kultura: kantugintza, literatura, ahozotasuna sustatzea	Hitzen Lihoa	Itunpekoa	24.000 €	0331.481.334.00.12	Urteko memoria eta txosten ekonomikoa.  Antolatutako ekintza, talde kopurua.  Parte hartzaile kopurua, sexuagatik desagregatua.	Indarraldia: Urtekoa  Dirulaguntzaren izaerarengatik ez dago oinarrien beharrik
Olarri taldearekin hitzarmena	Oiartzunen helduen artean dantza sustatzea	Olarri	Itunpekoa	6.000,00 €	1 0331.481.334.00.11	Urteko memoria eta txosten ekonomikoa.  Antolatutako ekintza kopurua.  Parte hartzaile kopurua, sexuagatik desagregatua.	Indarraldia: Urtekoa  Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten



							baldintza guztiak.
Auzotako festak antolatzeko dirulaguntza	Auzoetako festak antolatzen laguntzea	Auzotako festa batzordeak. Aldeguna, Auzokalte, Klarene-Altzibar, Santiyuk, Bizardia, Ugaldetxo Kultur taldea, Munandi Artaso	Itunpekoa	2025: 5.400,00 € 5.400,00 € 6.000,00 €  5.400,00 € 5.400,00 € 6.400,00 €  510,00 € 5.400,00 €  2026 eta 2027:  5.900,00 € 5.900,00 € 6.500,00 €  5.900,00 € 5.900,00 € 6.900,00 €  510,00 € 5.900,00 €	1 0331.481.338.00.01 1 0331.481.338.00.02 1 0331.481.338.00.03  1 0331.481.338.00.04 1 0331.481.338.00.06 1 0331.481.338.00.07  1 0331.481.338.00.08 1 0331.481.338.00.09	Urteko memoria eta txosten ekonomikoa.  Adierazle hauek ere kontuan hartuko dira: - Antolatutako ekintza kopurua. - Auto-finantzaketa - Antolaketan parte hartzen duten pertsona kopurua sexuagatik desagregatuta - Festetan parte hartzen duten pertsona kopurua sexuagatik desagregatuta. - Parekidetasunera ko hartutakoneurri kopurua.	Indarraldia: Urtekoa  Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak.



OIARTZUNGO  
UDALA

Ez-ohiko kultur ekitaldiak	Aurreikusi gabeko kultur ekintzak antolatzen laguntzea. Urtero egiten ez diren ez-ohiko kultur ekintzak antolatzea.	Kultur ekintzen antolatzaileak	Norgehiagoka deialdia	6.000 €	1 0331.481.334.00.16	Eragile bakoitzak ekintzari buruz egindako memoria eta txosten ekonomikoa.  Adierazle hauek ere kontuan hartuko dira: <ul style="list-style-type: none"><li>- Eskaera kopurua</li><li>- Emandako dirulaguntza kopurua</li><li>- Baztertutako eskaera kopurua.</li><li>- Erabilitako kreditua etadirulaguntzen batez bestekoa.</li></ul> Parte hartzaile kopurua: antolatzaileak eta ikusleak, sexuagatik desagregatuak.	Indarraldia: Urtekoa  Arloan dauden dirulaguntzak arautzen dituzten Araudiek eta oinarriek horien xedea eta helburuak, hartzaileak eta parte-hartze baldintzak, dirulaguntza emateko kontzeptuak eta irizpideak, dirulaguntzen justifikazioa, diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa, diruz lagundutako





							ekintzen justifikazioa eta hartzaileen betebeharrak jasoko dituzte
